

Olatu berria

Euskaldunon Egunkaria, 1997-08-10: 3.

Mundua izutu zuen egintzak apur bat dena baretuko zuela pentsatu genuenok iparra galtzen ari gara. Pentsatu genuen, bada, ez zela horrelakorik berrituko. Madrileko legegintzari jaitisiko zitziola izpiritu santua eta presoez eta hauen artean gaixoez, eta senideez, batez ere adinduez, amez, arduratuko zela, eta bidez, zergatiak kamustu, hitzbideak eragin, eta hemengo suak itzaliko zirela: hemen legez kanpoko bideo harrapagailuen mehatxuak horretan geratuko zirela eskarmenturako, eta haurrak legez errespetatuko zirela. Baina ez, hasi dira suteak egoitzetan eta etxebizitzetan berriz arrapala hutsean, eta horien aurka iragarritako polizia neurri zahar eta antzuok... Legea beharrezkoa da, eta Ertzaintza, baina ez dira baliabide bakarrak, ez onenak ere. Pentsatu genuen, neuk behintzat, estatu polizialaren bidea alde batera utziko zela, estatu arrazoiaren zuribidea ere bai, sistema bezala, gizakiaren mean sartuko ginela, ea bigarren olatu honek beste norabidea hartzen zuen... baina egun gutxi barru lehengo seta itsu berean sartzeko arriskuan gaude. Honen aurka, hitza gauza gutxi da, baina doala.